

eman ta zabal zazu



ERIZAINZA ZERBITZUEN KUDEAKETA ETA KALITATEA

IRRINTZI FERNÁNDEZ AEDO
SENDOA BALLESTEROS PEÑA

2016

ERIZAINZA GRADUA – MEDIKUNTZA ETA ERIZAINZA FAKULTATEA – LEIOA

ARIKETEN EBAZPENAK

HIRUGARREN ARIKETAREN EBAZPENA:

A ZE KORAPILOA

Organigrama momentu zehatz batetako erakunde baten egituraketa formalaren irudikapen grafikoa da. Erakundearen egituraketa formalari buruzko informazioa ematen du, hau da, kargu ezberdinetako pertsonen maila hierarkikoak, organoak, harreman formalak eta izenak. Erakundeek aurrera egiteko eta lehiatzeko antolatzea beharrezkoa dute, eta organigrama horretarako tresna estrategikoa eta ondo egituratutakoa da, erakundearen erabilera erraza, argia eta egokia bermatuz.

Organigrama bat osatzen duten unitateak antolaketaren maila hierarkiko ezberdinei jarraituz ordenatu behar dira, hauek natura, funtzio, sektore, eremu, eduki eta aurkezpenaren arabera aldatzen direlarik. Erlazio linealak autoritatea eta ardura adierazten ditu, honen bitartez unitate ezberdinen arteko menpekotasun harremana ezartzea ahalbidetzen duelarik.

Hori kontuan hartuta, organigrama batek eskaintzen dituen abantaila nagusienak hurrengoak dira:

- Begibistaz egiturak eta orokorra eta harremanak hauteman daitezke.
- Mendekotasunak aurkezten ditu, hau da, nor den noren mendekoa.
- Dependentzia baten egituraketaren berezitasun garrantzitsuak adierazten ditu, puntu ahulak zein indartsuak.
- Aldaketen historia moduan, irakaskuntza tresna bezala edota publikorako informazio bide bezala balio du.
- Antolaketa printzipioak funtzionatu dezaten baliagarria da.
- Administratzaileak eta sartu berriko langileei erakundearen integrazioaren modua adierazten die.
- Hazkuntza baten planifikaziorako gida bezala erabiltzen da.

ERANTZUNA:

